



Arartekoaren 2014R-2746-13 ebazpena, 2014ko martxoaren 17koa. Horren bidez, Errenteriako Udalari gomendatzen zaio kirol hastapeneko unitateetako irakaskuntza jardueretan adingabeek parte har dezaten aukerak zabaltzeko neurriak har ditzan.

Aurrekariak

1. Erakunde honetara Errenteriako 8 urteko neskatila baten ama etorri zen, Touring K.E.k antolatutako "Futbol Eskola" izenekoan parte hartzeko eskaera ukatu ziotelako kezu, hain zuzen, haren ikastetxeko (Koldo Mitxelena) eskolaz kanpoko jardueretan izena emanda edukitzeko eta parte hartzeko baldintza ez betetzeagatik.

Aipatu baldintzaren exijentzia funtsatzeko, Errenteriako Kirolaren Udal Patronatuak urriaren 19ko 63/2007 Foru Agindua apelatu zuen (horren bidez ikasleentzako kirol teknifikazio unitateak baimentzeko erregimena arautzen da). Agindu horrekin bat eginez, ikastetxeari bidalitako idazkian patronatuak zera argudiatu zuen: *"ikasleak bere ikastetxeko kirol ekintzetan izena ematea eta parte hartzea ezinbesteko baldintza da eta arauan ez da baldintza horretatik salbuetsita dagoen salbuespenik jaso"*.

2. Arartekoak, abenduaren 10ean, Errenteriako Udalera jo zuen kezak mahaigaineratutako alderdien berri edukitzeko eta, bereziki, aipatu foru aginduko 3. artikulua eta ondorengo otsailaren 25eko 69/2008 Foru Aginduaren interpretazioaren berri.
3. Errenteriako "Kirol Kide" Kirolaren Udal Patronatuak 2013ko abenduaren 20ko idazkiaren bidez erantzun zuen. Patronatu hau aipatu baldintzari lotzen zaio. Izan ere, haren ustez, bestela ez litzateke beteko 69/2008 Foru Aginduko 3. artikuluko 1. atalean xedatutakoa. Honako hau: *"Kirol hastapeneko unitateen irakaskuntza jarduerak udal, eskualde eta lurralde eremuko eskola kiroleko antolakuntzaren barruan egiten direnen osagarri izango dira eta ez haien ordezkoi; beraz, elkarren artean koordinatuta programatuko dira."*

Halaber, patronatuak esan du berariaz azaldu zuela erabiltzaileek aipatu klubari baimena ematerakoan eskola-kirolean parte hartzeari lotuta dagoen baldintza. Klub horrek aipatu unitatearen antolamendurako ezarrita dauden baldintzen zati gisa errespetatzeko konpromisoa hartu zuen.

4. Erantzun hori jasota, Arartekoak haren esku-hartzeari amaiera ematea erabaki du honako ebazpen hau emanez. Ebazpena ondoko gogoetetan oinarritzen da.





Gogoetak

1. Erakunde honek jakin badaki zer garrantzia duen haurrentzako kirol teknifikazioaren eskaintza eskola-kirolarekin koordinatuta egoteak eta hala izatearekin ados dago. Hala, adin horietan kirol modalitateen eta ibilbideen arteko nolabaiteko oreka lortu nahi da eta adingabeek goizegi kirol bat aukeratu dezaten saihestu nahi da, izan ere, horrek beste kirol batzuk ezagutzeko aukera galarazten du eta, horrenbestez, ez dute kirola jolas eta balioak ikasteko aukera gisa ulertuko.
2. Hala ere, ez du ematen hori kexagilearen alabaren kasua denik, izan ere, adierazi du haren nahia hauxe besterik ez zela: bere alabak entrenamenduetara joateko aukera eduki zezala, egun egiten dituen eskolaz kanpoko musika jarduerak kirol ekintza batekin osatzeko modu gisa. Eskolako kirolen ordutegia ez zen adingabearen musika jarduerekin bateragarria baina ez zuen nahi musika jarduerak aukeratu izanak kirol izaera daukaten beste jardun batzuetan parte hartzeko aukera saihestea -futbol eskolak antolatzen dituen entrenamenduak, hain zuzen-, azken horien ordutegia bateragarria baitzen.
3. Kirolaren Udal Patronatuak apelatzen duen araudia aztertu ostean, bertan ezin izan ditugu identifikatu ikasleak haien ikastetxeko eskola-kirolean nahitaz izena emanda egoteari eta bertako jardueretan parte hartzeari lotutako baldintza jorrazten duten manuak. Erakunde honen ustez, ezin da urriaren 19ko 63/2007 Foru Arauko 3.1.i) artikulutik ondorioztatu, ezta futbolaren esparruan "hastapeneko unitateei" aplikatzea arautzen duen 69/2008 Foru Arauko 3. artikulutik ere. Xedapen horiek bakarrik ezarri dute unitateek euren jarduerak eskolako kirolaren testuinguruan burutzen diren jarduerekin koordinatuz programatu behar dituztela, baina ez da ezarri erabiltzaileek nahitaz jarduera horietan parte hartu behar dutenik.

Horixe ondorioztatu daiteke ez bakarrik hitzez hitz irakurriz, baita bi arauen xedeari erreparatuta ere. Hori "futbol eskolak" izenarekin ezagutzen diren horiek baimentzeko araudia erregulatzekoa dela kontuan hartuta, badirudi bistakoa dela horiei -eta ez haren erabiltzaileei- zuzenduta dagoela bertako jarduerak osagarriak eta ez ordezkioak izateko eskakizuna, eskola-kirolaren esparruan antolatzen diren horiek. Horregatik, aipatu foru agindua, 3. artikuluan xedatuta dagoenez, ondoren eskola horietara zuzendu da -ez ikasleei-, jarduerak eskola-kirolaren programakoekin bateragarri direla bermatzeko betebeharra gogora ekarriz, hain zuzen, horien guztien programazio koordinatu baten bitartez. Horregatik, alde batetik, ordutegiak bat etor daitezten saihestu behar dute eta, bestetik, eskola-kirolaren udal egituraren adostasuna lortu behar dute. Hala, ikasleek aukera dute, eta ez betebeharra, jarduera batzuk eta besteak egiteko. Eskolako kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 12.3.e) artikulua horren inguruan





xedatu duen eskakizunak helburu berbera dauka, hau da, ahalbidetzea eta ez behartzea.

Azkenik, gogora ekarri behar da 69/2008 Foru Arauko zioen azalpenak, urriaren 19ko 63/2007 Foru Aginduak horren inguruan xedatutakoa bilduz, ezartzen duela hastapeneko unitateak izeneko horietan garatutako jarduerak ikasle guztiei zuzenduta daudela, kirola egiteko ahalmen gehiago edo gutxiago izan alde batera utzita. Horrek kasu honetan bezalakoetan defendatzen dugun interpretazioa indartzen du. Alegia, adingabeak parte hartu nahi zuen futbol eskolako jarduerak ez ziren 69/2008 Foru Agindu horrek 6. artikuluko b) idatz-zatian aipatutakoak, a) idatz-zatian jasotako irakaskuntzak edota jolas askekoak baizik.

4. Azken batean, eztabaida juridikoa ikuspegi kontu bat da. Izan ere, Arartekoaren ustez, eskolaz kanpoko jarduerak antolatu nahi dituzten erakundeek nahitaezko baimena lortzeko eska daitezkeen baldintzen esparrua agerian jartzen dute xedapen horiek. Ikuspegi horretatik, Kirolaren Udal Patronatuak teknifikazio unitatearen klub antolatzaileari aipatu arauditik eratorritako eskakizun guztiak helaraztea logikoa bada ere, hori ezin du oinarri hartu aipatu erakundeari jakinarazteko haien zerbitzuak erabiltzen dituzten horiei espediente honek jorratu duen bezalako baldintza bat eskatu behar diela. Azaldutako argudioak kontuan hartuta, iruditzen zaigu, zuzenbidearekin gehiago etortzen dela bat, kexagilearen alabari jazotako egoera bezalakoak izaten direnean, hark eskatzen duen moduan aipatu zerbitzuak baliatzeko aukera emango duen arauaren interpretazio bat. Hala, gure iritziz, hitzez hitzekoa errespetatzeaz gain, interpretazio-irizpide teleologiko eta sistematikoekin hobeto etorriko da bat.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarri duenarekin bat etorriz, honako gomendio hau egin dugu.

GOMENDIOA

Errenteriako “Kirol Kide” Kirolaren Udal Patronatuari egina, kexagilearen alabaren egoeraren antzekoan dauden adingabeek ikasleentzako kirol hastapeneko unitateetan garatutako jardueretan parte har dezaten, ikasle horien ikastetxeko eskola-kirolean izena emanda duten edo ez alde batera utzita.

